# Urtasun

Ura tratatzeko instalazioa




# Urtasun Edateko ura tratatzeko instalazioa

**Ura tratatzeko Urtasungo instalazioak Eugiko urtegitik datozen urak hartu eta gizakiok kontsumitzeko moduan jartzen ditu. Instalazioaren tratamendu-gaitasuna 1.050 l/s-koa da, eta prozesu jarraituan egiten du, 24 orduz egunean.**

**Instalazioaren ezaugarriak:**
Kokalekua: Urtasun (Esteribar)
Eraiki zen urtea: 1976
Azalera guztira: 14.900 m$^2$

**Tratamendu-lineak:**
Aprobetxamendu hidroelektrikoa: 2 zentral
Uraren tratamendua: 1.050 l/s
Lohien tratamendua: 3 t/egun







## BALIABIDE NATURALA

**1**

**HARTZEKO ITURRIA**

Eugiko urtegia Esteribarren dago, Iruñetik 26 kilometrora, eta 20,26 hm$^3$-ko edukiera erabilgarria du. 1973an hasi zen funtzionatzen, eta eraikitzearekin batera bi helburu bete ziren: bata, Iruñerriko ur-hornikuntza ziurtatzea, Artetatik datorrena osatuta; eta, bestea, Arga ibaiaren ur-emaria erregulatzea.

## APROBETXAMENDU HIDROELEKTRIKOA

**2**

**ZENTRAL HIDROELEKTRIKOAK**

**2a.** Presaren oinarrian, zentral hidroelektriko batek elektrizitate bilakatzen du urak erortzean sortutako energia; gero, sare orokorrean sartzeko saltzen da. **2b.** Instalazioaren sarreran dagoen bigarren zentral hidroelektriko batek urtegiarekiko dagoen 30 metroko desnibela baliatu eta energia hidroelektrikoa sortzen du instalazioen funtzionamendurako. Soberakinak sare orokorrean sartzeko saltzen dira.

## URAREN TRATAMENDUA

**3**

**KLORAZIO AURREKOA-KOAGULAZIOA**

Instalazioan sartzean, urak kloro bidezko tratamendua jasotzen du desinfektatzeko; horri esker, mikroorganismoak ez dira ugaltzen eta algak ez dira sortzen.

Iritsierako Obran produktu bat eransten da koagulatzen laguntzeko; helburua da esekita dauden partikulak taldekatu eta errazago kentzea.

**4**

**MALUTAPENA-DEKANTAZIOA**

Banaketako Obran, korronteak sare metaliko batzuk zeharkatzen ditu, eta horretan gelditzen dira hostoak, arrainak eta urak daramatzan gainerako solidoak. Geroago, urak malutatzaile bat jasotzen du, eta koagulatutako partikulak taldekatu egiten dira malutak sortuta, hau da, diametro eta dentsitate handiagoko pikorrak. Dekantagailuetan, astintze arin batek malutak handitzen eta dekantatzen laguntzen du, eta hondora erortzen dira lohiak sortuta.

**5**

**IRAGAZTEA**

Ura, kanal txiki batzuen bidez, dekantagailuetatik iragazkietara bideratzen da. Iragazki bakoitzak 0,9 metroko lodiera duen hondar-geruza bat du, dekantagailuetan kendu ez diren partikulak atxikitzeko. Aldian behin, iragazkiak garbitu egiten dira airea injektatuz eta presiopeko ura erabiliz.

**6**

**BILTZEA ETA BANATZEA**

Iragazi eta gero, instalazioko tangan biltzen da ura; 7 milioi litro ur sartzen dira bertan. Kontsumorako guneetara banatzen hasi aurretik, kloroa dosifikatzen da edaten ahal dela ziurtatzeko, eta sosa gehitzen da azido-base oreka doitu eta hoditeria eta instalazioak gutxiago honda daitezen.

**7**

**KALITATE-KONTROLA**

Kontsumitzeko uraren kalitatea ziurtatze aldera Espainiako araudiek exijitzen dituzten parametro guztiak kontrolatzen dira laborategian.

## AZPIPRODUKTUEN TRATAMENDUA

**8**

**LOHIEN TRATAMENDUA**

Dekantaziotik datozen lohiak tratatzeko instalazioetara bideratzen dira deshidratatzeko. Lehortu eta gero, Gongorako zabortegira eramaten dira ibaietara itzul ez daitezen.




Impreso en papel reciclado